

# ZER KONTATUKO DIDAZU?

LITERATURARI BURUZKO PROIEKTUA

HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATURAKO MATERIALAK

DBH 4 irakaslearen materialak



Arantza Intxausti. Cristóbal Gamón.

## **AURKIBIDEA**

- 1. Proiektuaren justifikazioa**
  - 1.1 Literatura eta narrazio testuen kokapena**
  - 1.2 Literatura eta narrazio testuen interes didaktikoa**
- 2. Proiektu bateratuaren berezitasunak:**
  - 2.1 Komunikazio egoeraren deskribapena**
  - 2.2 Proiektuaren ardatz komuna**
  - 2.3 Helburu orokorrak**
  - 2.4 Oinarrizko gaitasunen garapena**
- 3. H1: Euskara**
  - 3.1 Emandako irizpideak jarraituz, norberak aukeratutako eleberri baten irakurketa, eta taldeka, ereduak imitatuz, eleberri bat idaztea**
  - 3.2 Komunikazio egoera**
  - 3.3 Ibilbideak**
  - 3.4 Testu generoen errepertorioa**
  - 3.5 Unitatearen ardatza**
  - 3.6 Helburu didaktikoak**
  - 3.7 Edukiak**
  - 3.8 Ebaluazio-irizpideak**
  - 3.9 Ebaluazioa**
  - 3.10 Proba ereduak**
  - 3.11 Unitate didaktikoaren jarduerak bideratzeko orientabideak**

## **4 Denboralizazioa**

## **1. Proiektuaren justifikazioa:**

### **1.1. Literatura eta narrazio testuen kokapena**

Komunikazio-kompetentziaren alde osagarria da literatura-kompetentzia.

Literatura-kompetentzia literatura-testuak irakurtzeko, entzuteko, interpretatzeko eta sortzeko kompetentzia da.

Literatura-kompetentzia garatzeko, ulerrmen- eta ekoizpen-kompetentzia orokorrez gain, literatura komunikazio-bide erabat desberdin bihurtzen duten konbentzioak eta teknikak jakin behar dira, baita norberaren kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko erreferente batzuk ere.

Hizkuntzak dimentsio estetikoa du literaturaren eremuan. Eremu horretako testuak ulertzeko eta sortzeko beharrezkoa da adierazpide horren arauak eta baliabideak ezagutzea eta erabiltzea

Bestalde, ikasleek ulertu behar dute literatura-testuak testuinguru historiko eta soziokultural jakin baten emaitza direla, baita tradizio baten isla ere.

### **1.2. Literatura eta narrazio testuen interes didaktikoa**

Hizkuntzen trataera bateratuan, literaturaren zenbait eduki eta prozedurak, hizkuntzaren eduki eta prozedurekin gertatzen de bezala, erabilgarriak dira hizkuntza batean eta bestean. Ondorioz, hizkuntzen trataera bateratuen programan, proiektu bat literaturari buruzkoa da, eta DBHko 4. mailan narratiba landuko da.

Proiektu honen helburua hiru puntutan ardatzen da:

- Irakurketa: Irakurketaren gozamina sentitzeko, bizitzeko; irakurketa ohitura hartzen joateko; irakurketa ezagutzarako eta komunikaziorako iturri ere badela ohartzeko: denboran edo espazioan, norberarengandik

urruti edota gertu dauden beste mundo, errealitate, pertsonekin ... harremanetan jartzeko

Horretarako, gustuko eleberri bat hautatzeko irizpideak eta informazioa eskainiko diogu ikasleari, eta ondoren, haren irakurketaren gozamina esperimenta dezan bultzatuko dugu.

- Ezagutza:
  - Literatura-testuak geroz eta hobeto ulertzeko eta asmo literarioa duten testuak sortzeko ikasleek behar dituzten oinarritzko ezagutzak: literatura-genero narratiboari, haren identitatea markatzen duten ezaugarriei dagozkienak.  
  
Ikasleek XX. mendeko eta egungo hainbat autoreren eleberri-zatiak aztertuko dituzte
  - Kultura-tradizioaren ezagutza: garaiak, mugimenduak...
- Eleberri baten ekoizpena: Ereduen irakurketaren eta azterketaren bidez jasotako hizkuntza literarioaren ezaugarriei buruzko ezagutzak sakonduko eta aplikatuko ditu ikasle taldeak bere eleberria idaztean.

## **2. Proiektu bateratuaren ezaugarriak:**

Zer kontatuko didazu? izenburua duen proiektu hau, DBH 4.mailarako proposatu dugu eta Hizkuntzen trataera baturatuaren programan kokatzen da (HTB). Ikasleek testu narratiboak aztertuko dituzte (elkarrizketa eta deskripzioarekin batera) , azalpen eta argudio testuak , ikasturtean zehar ikusitakoaren laburpen gisa. Hala eta guztiz ere, literatura testua azken ekoizpenaren ardatza izango da.

### **2.1. Komunikazio egoeraren deskribapena**

Proiektu honek komunikaziorako gaitasunaren garapenarekin batera, ikasleek heziketa literarioan aurrera egin dezatela du helburutzat. Proiektuan zehar, literatura-testuak komunikazio modu berezizat, barne-munduaren adierazletzat, gozamen-iturritzat eta testuinguru historiko eta soziokulturaren batean txertatutako produktu social eta kulturaltzat har ditzaten saiatuko gara.

Horretarako, literatura-lan ugariaren berri izateko, irakurtzeko, aztertzeko eta ikasteko aukera eskainiko diegu. Literaturan, hizkuntza estetikaren tresna bihurtzen da eta esanahia adierazteko duen modu berezi horren eta

horretarako erabiltzen dituen baliabideen oinarritzko ezagutza eskatzen duela ohartaraziko diegu.

Azkenik, literaturari dagokionez, ahaztu ezinezko beste alderdi bat: literatura-testu oro testuinguru historiko eta soziokultural jakin batean kokatutako ekoizpena da. Beraz, bertako literatura-lanen irakurketaren bidez, norbanakoari bere kultura-tradizioan sartzen laguntzeaz gainera, bertakoaren ikuspegi mugatua gainditzea ahalbidetuko dio ikasleari, errealitateari beste ikuspegi batzuetatik begiratzea.

## **2.2. Proiektuaren ardatz komuna**

**Tipoa:** Narrazioa, deskribapena eta elkarrizketa.

**Erabilpen eremua:** Literarioa. Hizkuntza literaturan.

**Gaia:** Euskal eleberrigintza, ohiturazko eleberritik hasita modernitate osteko eleberrigintzaren ezaugarriak.

## **2.3. Helburu orokorrak**

1. Literatura-hizkuntzaren oinarritzko ezaugarriak ezagutu, horien dimentsio estetikoa balioesteko
2. Euskal literaturak nahiz literatura unibertsaleko oinarritzko erreferenteak ezagutu (garaiak, mugimenduak, lanak, egileak...) eta literatura-lan esanguratsuen zatiak elkarrekin interpretatu, bakoitza bere testuinguru historiko eta kulturalean kokatuz
3. Norberaren bizipenak, sentimenduak eta hausnarketak sormenez eta sentsibilitate estetikoaz adierazi, erreferentziazko literatura-lanak oinarritzat hartuta, hainbat generotako literatura-testuak sortuz.
4. Literatura atsegin-iturri modura erabili, sentsibilitate estetikoa garatzeko, mundua ezagutzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) osatzeko.
5. Euskara eguneroko komunikazio-harremanetan erabili, euskararen normalizazio-prozesuan eta euskal kulturaren transmisioan erantzukizunez parte hartuz.

## **2.4. Oinarrizko gaitasunen garapena**

Erkidegoko curriculum berrian argi adierazten den legez, oinarrizko hezkuntzaren helburua honako hau da: pertsona helduak heztea, euren ibilbide akademiko edo profesionalean aurkituko dituzten edozein egoerari aurre egiteko gai izango diren pertsonak heztea. Horretarako, irakasgai guztiek, hizkuntza-irakasgaiak barne, bizitza osoan ikasten lagunduko duten oinarrizko zortzi gaitasunak garatzen lagundu behar dute, gaitasun horiei esker, pertsonaren errealizazioa, garapena, herritartasun aktiboa eta gizarteintegrazioa lortuko baitira.

Kurrikulum berri horretan haxe jotzen da oinarrizko gaitasuntzat: “jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzari egokitua, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrekotzat jotzen dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko”.

Dakigunez, hizkuntzek garatzeko balio dute curriculum berriak ikasleen garapen pertsonal eta intelektuala lortzeko beharrekotzat jotzen dituen oinarrizko gaitasun guztiak “tresna pribilegiatuak baitira komunikatzeko, mundua irudikatzeko, gizartean txertatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko” .

Proposatutako HTB proiektua, ikasleen oinarrizko gaitasun horietatik gehienak garatzeko asmoarekin gauzatzen ari da. Hori dela eta, proiektu honetako ariketetan honako gaitasun hauek landuko dira argi eta garbi:

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

### **3. H1: Euskara**

#### **3.1. Azken ekoizpena: irakurketa eta eleberria idaztea.**

Idazle bilakatuko dira ikasleak unitate honetan, eleberri baten idazle. Baina proiektuak bi atal izango ditu:

- ➔ Bere kabuz, maisuki idatzitako eleberri bat irakurtzea. Literaturaz gozatzea eta sorkuntzarako erreferente bat gehiago edukitzea izango da irakurketa horren helburua. Bide batez, oroimena ere aberastuko dute.
- ➔ Eleberri bat idaztea. Horretarako, euskal idazleek idatzitako hainbat eleberri ezagutzeko aukera eskainiko diegu unitatean zehar, imitatu ahal izateko erreferenteak izan ditzaten. Baina horretaz gain, idazleek erabiltzen dituzten hainbat teknika ere azalduko diegu.

#### **3.2. Komunikazio egoera:**

- a. Gaia: XX. mendeko eta egungo hainbat autoreren eleberri-zatiak aztertu, eta honekin batera, gure kultura-tradizioaren ezagutza.
- b. Igorleak: DBH 4. mailako ikasleak, hiruko taldeak osaturik
- c. Hartzaileak: 4. mailako ikasleak.
- d. Kanala: ahozkoa eta idatzia.
- e. Asmoa eta helburua: Alde batetik, irakurketaren bidez literaturaz gozatzea eta ikasleak liburu horrekiko duen iritzia gelakideekin partekatu. Eta bestetik, eleberri bat idaztea, irakurritako eleberri zatiak imitatuz, eta ikasitako teknikak aplikatuz.
- f. Erkusketa tokia: Irakurritako liburuen iritzia gelan bertan eta idatzitako eleberriak liburutegian.
- g. Erabilpen eremua : literatura eremua.

### **3.2. Ibilbideak**

- Proiektuaren aurkezpena eta negoziaketa
- Proiektuari dagozkion gaitasun diskurtsibo, soziolinguistiko, linguistiko eta estrategikoen ezaugarrien analisia
- Testuaren ekoizpena.:testuingurura egokitzea, plangintza, testu egokitzapena ,berrikuspena.
- Proiektuaren aurkezpen publikoa
- Ebaluaketa (Proiektuaren hasieran, jarraipenean, eta amaieran )

### **3.3. Testu generoen errepertorioa**

- Eleberriak
- Biografia
- Artikuluak
- Deskribapenak

### **3.4. Unitatearen ardatza**

#### **MOTIBAZIO SAIOA - Gure historiaren protagonistak ezagutzen**

**0 Jarduera:** Eta zuk handitan zer izan nahi duzu

#### **1 LAN-SEKUENTZIA – Irakurtzeko zaletasuna**

**1 Jarduera:** a/ irakurri zertarako?

b/ zerk eraman gaitzake liburu bat irakurtzera

**2 Jarduera:** euskal prentsan literaturari edo idazteari egiten zaizkion aipamenak aurkitzen

**3 Jarduera:** eleberria irakurtzeko aukera



## 2 LAN-SEKUENTZIA - Zer da eleberria?

4 **Jarduera:** eleberria definitu

5 **Jarduera:** eleberria idazteko dekalogo posible bat idaztea

## 3 LAN-SEKUENTZIA - Euskal eleberrigintzaren sorrera: *Peru Abarka eta Garoa*

6 **Jarduera :** euskal eleberrigintzaren sorrera aztertu

## 4 LAN-SEKUENTZIA - Euskal eleberrigintza modernoaren hastapenak: *Leturiaren egunkari ezkutua*

7 **Jarduera:** ohiturazko eleberriekiko haustura

8 **Jarduera:** berrikuntza kontatzeko eran : *Egunero hasten delako*

## 5 LAN-SEKUENTZIA – Idazte espedizioa planifikatzen

9 **Jarduera:** amaierak asmatzen

a/ sormenezko imitazioa

b/ aipuak abiapuntu

c/ oroitzapen literarioak

## 6 LAN-SEKUENTZIA – Argumentua

10 **Jarduera:** argumentuaren bila

11 **Jarduera:** pertsonaiak definitzen

## 7 LAN-SEKUENTZIA – Argumentua eta kontatzeko era

12 **Jarduera:** argumentua garatzen

13 **Jarduera:** eleberriaren kontatzeko era erabakitzea

## 8 LAN-SEKUENTZIA – Deskribapenaren funtzioa

14 **Jarduera:** pertsonaien deskribapenak aztertzen

15 **Jarduera:** hainbat pertsonaiaren aurkezpenak aztertu

16 **Jarduera:** pertsonaiak identifikatu

## 9 LAN-SEKUENTZIA – Eszenatokien deskribapena

17 **Jarduera:** a/ zenbait eszenatokien deskribapenak aztertu

b/ zeuen eleberriaren eszenatokia deskribatu

## 10 LAN-SEKUENTZIA – Kontakizunaren erritmoa

18 **Jarduera:** ereduak aztertzen

19 **Jarduera:** barne-bakarrizketaren ezaugarriak identifikatu

**20 Jarduera:** zeuen eleberria berrikusten: denbora erreparatu

**21 Jarduera:** pertsonaien elkarrizketak : pertsonaien hitzak eta puntuazio markak

**22 Jarduera:** zeuen eleberriaren azken berrikusketa

**23 Jarduera:** eleberriaren azala hautatu

## **AUTOEBALUAZIOA**

### **3.6. Helburu didaktikoak**

1. Euskal eleberrigintzako oinarrizko erreferente diren obra zatien irakurketa eta azterketa, obra horien esanahia elkarren artean eraikiz, euskal kultura-tradizioari buruzko ezagutza barneratzea.
2. Atseginerako irakurketa helburu duen literatura-obra bat irizpide propioz hautatu eta, osotasunean irakurri ondoren, norberak bizi izan duen esperientzia eta daukan iritzia azaltzea eta justifikatzea.
3. Ideien sormenerako eta garapenerako landutako prozedura aplikatuz, taldeak eleberria planifikatzea eta lehen zirriborroa idaztea.
4. Landutako ereduak erreferentziaz hartuta, nobelako pertsonaiak eta ekintzen eszenatokiak argi eta baliabide adierazkor aproposak erabiliz deskribatzea, eta sortutako testu-sekuentziak kontakizunean egoki integratzea.
5. Landutako ereduak imitatuz, taldearen nobelako kontakizunaren erritmoa bizkortzeko nahiz moteltzeko landutako baliabideak modu kontzientean eta egoki erabiltzea.
6. Ikasitakoa aplikatuz eta identifikatutako hutsegiteei konponbidea bilatuz, idatzitako eleberria berrikustea eta hobetzea.

### **3.7 Edukiak**

#### **3.7.1.Prozedurak**

- a. Narrazio testuen irakurketa eta ulermena.
- b. Narrazio testuen ezaugarriak aztertu eta identifikatu.
- c. Ikuspegi ezberdinetatik narrazio testuak aztertu eta konparatu.
- d. Narrazio testua ulertzeko behar diren teknika eta estrategiak erabili.
- e. Zenbait iturritan informazioa bilatu.

- f. Gustuko liburu bat aurkitu
- g. Obraren irakurketari buruzko esperientzia eta ikuspegi pertsonala adierazi
- h. Azken ekoizpenerako, hainbat eleberriren teknikak aztertu.
- i. Eleberria planifikatu.
- j. Azken ekoizpena birpasatu eta zuzendu.

### **3.7.2 Kontzeptuak**

- a. Euskal eleberrigintza. Sorrera: ohiturazko eleberriak, ezaugarriak, autoreak eta obrak.
- b. Euskal eleberrigintza modernoa. Ezaugarriak, autoreak eta obrak.
- c. Modernitate osteko eleberrigintza. Autoreak eta obrak.
- d. Nobelaren elementuak: pertsonaiak, espazioa, denbora, egitura, ekintzak, narratzailea
- e. Argumentua eta nobelaren egitura
- f. Deskribapena nobelan: pertsonaiak eta eszenatokiak
- g. Kontakizunaren erritmoa

### **3.7.3. Jarrerak**

- a. Gustuko irakurketa eta zenbait errealitate ezagutzeko aukera bat izan daitekeela balioetsi du.
- b. literatura-lanen aurrean, sentsibilitate estetikoa garatu du elementu estilistikoak baloratuz.
- c. Literatura-lanak jarrera kritikoa erakutsi du
- d. Ekoizpenaren zuzenketa aurrean jarrera positiboa
- e. Talde lanean besteek egindako aportazioak onartu ditu.
- f. Azken ekoizpenak lanaren ondorio gisa baloratu ditu.

### **3.8. Ebaluazio irizpideak**

1. Euskal eleberrigintzaren garaiak, obrak eta autoreak ezagutu eta identifikatzen ditu.
2. Euskal eleberrigintza tradizionala eta modernoaren ezaugarri nagusiak bereizten ditu
3. Eleberriaren elementuak ezagutu eta bere lanean erabiltzen ditu.
4. Deskribapenaren funtzioa kontaketa aztertu eta ekoizpenean ongi erabili du.
5. Istorioaren denbora eta kontakizunaren denbora bereizten ditu.
6. Informazioa bilatzen du hainbat iturri erabiliz: entziklopediak, testu liburuak, internet ...
7. Azken ekoizpenerako, informazio egokia aukeratzen du
8. Azken ekoizpena era egokian eta ondo egituratuta aurkezten du.
9. Bere ekoizpenak birpasatu eta zuzentzen ditu.
10. Literatura ondare kulturatzat hartzen du.
11. Literatura testuak jarrera kritikoz aztertzen ditu
12. Talde lana eta kideek egindako aportazioak onartzen ditu.
13. Bere taldeko ekoizpena eta besteena ere lanaren ondorio dela balioesten du.

### **3. 9. Ebaluazioa**

Gai honi dagokionez, bi momento desberdinduko ditugu; bata, prozesuaren garapena, hau da, proiektua iraun duen bitartean, ikasleek egindako lan guztia, eta bestea; azken ebaluazioa, hots, azken ekoizpena eta froga objektiboa. Honela, proiektuaren azken balorazioa hiru puntu hauek kontuan izanik egingo da:

- a. Azken ekoizpena: % 50a
- b. Eguneroko lanak (proiektuko jarduerak eta lanarekiko jarrera). % 20a
- c. Froga objektiboa: % 30a

### **3.10. Proba eredia**

Frogak bi zati ditu

- ➔ Irakurri duen liburuaren kontrola
- ➔ Gaiari buruzko galderak eta testu baten azterketa

#### **Euskal hizkuntza eta literatura**

##### **1. Zatia.**

1.- Unitatean zehar eleberri bat irakurri duzu? Zein? Eman aditzera liburuaren datuak:

Liburuaren izena .....
Idazlea .....
Argitaletxea

2.- Zerk eraman zaitu liburu hori irakurtzea?

3.- Adierazi hitz gutxitan zer kontatzen duen liburuak?

4.- Zer gustatu zaizu gehien liburutik; pertsonaia konkreturen baten izaera, kontatzeko era, lekuak...? Justifikatu zure erantzuna.

5.- Zu liburuaren idazlea bazina, zer da kenduko zenuena edo alferrikako ikusten duzuna?

6.- Eleberria irakurtzeak zertan lagundu dizu: informazioa zabaltzen memento entretenigarri bat igarotzen, gai baten inguruan zenuen pentsamoldea aldatzen, zenituen dudak argitzen...? Justifikatu erantzuna

7.- Eleberriaren tituluak bertan kontatzen dena adierazten duela uste duzu? Zuk zer beste izenburu jarriko zenioke eleberriari? Zergatik?

8.- Hasieran, eleberria irakurtzen hasi aurretik, liburuaz zenuen iritzia bukaeran mantendu egin da, ala guztiz bestelako iritzia duzu orain? Justifikatu erantzuna.

9.- Pertsonaietan, zein izan duzu gustukoen? Zergatik?

10.- Gai bera edo antzekoa lantzen duen beste eleberriren bat irakurtzera bultzatu al zaitu irakurketa honek? Zergatik?

## 2. zatia

1.- Kontuan hartuta eleberrigintza tradizionalak eta modernoak dituzten aldeak, saia zaitez ondorengo koadroa betetzen.

	<b>Narratzailea</b>	<b>Hizkuntza</b>	<b>Gaiak</b>	<b>Lanak</b>
<b>Eleberrigintza tradizionala</b>				
<b>Eleberrigintza modernoak</b>				

2.- Irakurri arretaz euskal eleberri ezagunetako pasarte hauek eta erantzun galderei:

1/

- *Kriston tirotea izan omen zuan.*

*Haizeak egunkariak, bufandak, gabardinak astintzen ditu. Aireak daraman txapel baten hegada segitzeko bueltatzen dira buruak.*

- *Baina batek ihes egin zian. Ez?*
- *Bat zuan barren*
- *Eta beroriek.*
- *Zeintzuk?*
- *Zeintzuk. Ba beroriek*
- *Ba auskalo. Euria hasten ari dik.*

*Euria hasten du. Argitasun horixka iragazten duen euri lanbro fina. Gabardinetako lepoak altxatzen dituzte, batzuek bere aterkien azpian babestuz, besteak buru makurtuen gainean egunkariak eusten dituzten besoak altxatuz pauso laburka korrika hasten dira. Sirena baten soinua euri lanbroaren kortina hezea eta horizatua urratuz, teilatuetan zehar irristatzen da.*

2/

Gizon txiki polit makur bat zan au, bere sorbaldetan larogeta bi urte andi jasoten zituan gizona. Iru edo lau uletxu zuri-baltz eukazan buru soil zetakaz betean, zutin zutinik; askozaz gehiago ta zuri kiskur kirikolauak garondoan, bildots edo arkume baten irudira; bepuru luze betien azpian begi urdin-adar bigun-bigunak; arpegi baltzeran guztiz zimurtua; oial lodi zakar arabakinduagaz egiñiko jaka zarra soñean; praka urdin zengle batzuei eusteko gerriko tendeltxu bat motor gañean, ontzi-soka lodi sendoaren antzera biurtua; ta olezko zapata oinzorro edo trauskoak oiñazpian.

Jaiegunetan obeto jazten zan, elizarako. Urdai zatiagaz, krusaloko orioagaz edo izurdearen zaiñagaz noizean bein bigundu oi zirean narruzko oñetakoak, alkondara zuri garbia, zarra bazan be, ta txintxonezko jaka-prakak; orixe zan jaiegunetako jantzia.

3/

Brusela-ko Irratiak urrunarazi egin zuen ezari-ezarian “Les Deserteurs” eresia (egunero entzuna!) eta osotara iraungi arte; eta sintoniaren goranzko notak eman zituen: sol-do-mi-la-re...Elsa-k bere erloju ñimiñoa begiratu zuen gaueko hamabiak laurden gutxi. “Voici le bulletin météorologique de L’Institut Royal de...” Elsa-k ez zuen ezer besterik entzun. Zer axola zitzaion biharamuneko eguraldia? Leihora zen; eta kristaletako gandua behatzez kenduta, kalera begiratu zuen; inor ere ez euripean, eta ez autorik inguruetan. Bat bakarrik agiri: Dubois jaunaren “Aronde” urdiña, Molière-kaleko erdi-ilunpe hartan beltza irudiz. 1965eko urriko astearte hartan eten gabe ari eta ari, euri fina, hotza eta geldia, zuten bruseldarrek: ia historik gabeko zuhaitzen azpia tai gabe oldartzen bide zuten ituteetarikako tanto lodiek. Dana blai-blai. Haizerik ez.

4/

Pentsatzen nuen orduan, berotasuna herrialdea bezain arrotz zitzaidala. Alabaina, arras bakan azaltzen diren lur erre hauek gure herriaz eskaini liburu koloretsuetan. Gehienek, Gasteiz-Santa Grazi línea asmatuaren goialde verdea baino ez zuten solasgai, linearen behaldea Euskal Herria ez bailitzan. Ordea, izerdi tematsua lantzer edo xirimirri kuttunarekin ezkontzen zen. Gorputz bakoitzak horma eta sua zekarren. Behialako autobusean eta karrikan hargatik, nekez moldatzen nintzen eremu horail, huts eta bero hauei.

Golkoaren barnean miatu nuen, Erriberaz irakurri edo nekiena batzen saiatuz. Deus guti ondorioz. Lanari lotzeko giderretatik bat Xabier Leteren Nafarroa Arragoa izango zen niretako, Benito Lertxundiren Erribera deiadarrarekin batera. Menturaz, Larragako Joteroen ahaideren bat neure altxor apurrari erants nezakeen. Euskal Herri berde, euritsu, hegotsu eta haritzez estalirikoa nintzen.

5/

Behin joan ginen Afrikako Durban deritzon herrira be (...) Ikarateko herria da ha, gizonak soinekoekin ibili beharrean, gorputzak pintatuta daukiez hainbat koloregaz, eta emakumeek barriz lepoen gainetik emon ohi deutesee umeei bularra, eta gehienak ibili ohi dira bilutsik, sudur mintzetan uztai handiak sartuta dabezala, gure aldeko idisko gaiztoen antzera. Etxeak euki beharrean, zuhaitz abarrezko eskepeak daukiez, eta frutekin eta gauza gordinekin elikatu ohi dira.

Noizik noizera puskat harrotuta zeozertan hasten badira ingelesen aurka, berehala jaurtiten dabez han dagozen gudontziek hiru edo lau putz, hil baltz pilo bat, eta gero dena isil-isilik.

Galderak:

- Zer kontatzen du pasarte bakoitzak?
- Zer espaziotan gertzen dira pasarte bakoitzeko ekintzak?
- Hizkera aldetik zer aipatuko zenuke?
- Narratzailea?
- Deskribapenak?



- Sailka itzazu irakurritako pasarteak eleberri tradizional edo modernoaren arabera. Arrazoitu erantzuna .

### **Kontrola ebaluatzeko irizpideak**

1. Argumentua ateratzen badaki
2. Espazioa eta bertan gertatzen diren ekintzak bereizten ditu
3. Narratzailearen ezaugarriak bereizi eta sailkatzen ditu
4. Pasartean dauden deskribapenak eta zer deskribatzen duen kokatzen ditu
5. Erlazionatzen ditu testu zatiak eta obran eta idazlearekin lotzen ditu
6. Idazleak garaian kokatzen ditu
7. Mugimendu ezberdinen ezaugarriak bereizten ditu
8. Literatura testuei dagozkien hizkuntza berezitasunak menderatzen ditu

### **Azken ekoizpena ebaluatzeko irizpideak**

- **Liburuaren irakurketa ebaluatzeko irizpideak**

1. Aukeraketaren arrazoiak eman ditu
2. Hitz gutxitan liburuak kontatzen duena adierazi du.
3. Zer gustatu zaion gehien (pertsonaiak, kontatzeko era...) arrazoitu du.
4. Zer sentimendu eragin dion liburua irakurtzean adierazi du.
5. Liburua irakurtzeak zertan lagundu dion esan du.
6. Liburuaren izenburuak zer adierazi dion azaldu du.
7. Liburuarekiko zituen iritzia kontatu dizkigu
8. Besteen hitzaldietan, interesa agertu du
9. Ahozko hizkuntza ongi erabili du

10. Ikaskideen lanak errespetatu eta baloratu ditu.

• **Ekoizpena baloratzeko irizpideak**

1. Eleberria hasi baino lehen, narrazioaren elementuak planifikatzen ditu  
(argumentua, kapituluetan garatzen du, pertsonaiak, hauen eta eszenatokiaren deskribapena, ...)
2. Argumentua interesgarria eta interesa piztekoa den ala ez taldeka eztabaidatu, eta besteen iritzia baloratu du.
3. Nobela planifikatzeko eskema batean ordena kronologikoa adierazi du.
4. Protagonista ongi aurkeztu du.
5. Pertsonaien deskribapenak egin ditu
6. Eszenatokia deskribatzeko ikasitako ereduak jarraitu ditu
7. Gertakizunen arteko lotura ongi erabili du (denbora esapideak...)
8. Ideen arteko lotura antolatzaileak erabiliz egin du.
9. Hizkuntzaren zuzentasuna.
10. Talde lanean parte hartu du eta ondokoen iradokizunak onartzen ditu
11. Beraien ekoizpena eta ikaskideena baloratu ditu.

**Eguneroko lana eta jarrera baloratzeko irizpideak**

1. Eguneroko lanak errespetuz, interesez eta zuzentasunez egiten ditu.
2. Talde lanean parte hartzen du.
3. Taldeko kideen iritzia errespetatu eta baloratzen ditu.
4. Zuzentzeko eta ebaluatzeko jarrera ona du

### **3.5. Unitate didaktikoaren jarduerak bideratzeko orientabideak**

#### **Orientabideak:**

#### **0 . jarduera :Gure historiaren protagonistak ezagutzen**

Idaztea edonoren esku dagoen jardun bat da, baina literatura idaztea idazle profesionalen lana bakarrik dela pentsatu ohi da orain arte. Ikasleei beraien bizipen eta zirrarak paperean islatzeko ardura emango diegu proiektuan; jarduera honetan idaztearen hasierako mementoaren inguruan hausnartzen jarriko ditugu.

#### **1. LAN-SEKUENTZIA**

##### **1. jarduera/ 2. jarduera/3. jarduera: irakurri zertarako**

Idazleak bestean antzeko pertsonak dira, baina badituzte ezaugarri batzuk: irakurtzeko zaletasuna, oroimena eta irudimena. Jarduera honetan irakurketaren inguruan jardungo gara, irakurtzeko zaletasunaren inguruan. Irakurketarekin batera oroimena ere landuko dugu, burura ekarri beharko baitituzte gehien gustatu zaizkien liburuak, ondoren ikaskideei gomendatu liburuak aukeraketa errazteko.

Ikasleak nola bilakatu irakurle da betiko zalantza. Horretarako:

- a/ edukitik bideratu dezakegu
- b/ lagunen iritziak entzutea
- c/ arrakasta izan duten liburuak (kontuz?????)
- d/ prentsa
- e/ gustuko musika-talde baten hitzak entzutea
- f/ idazleei egindako elkarrizketatik...

#### **2.LAN-SEKUENTZIA**

##### **4. jarduera/ 5. jarduera**

Jarduera hauetan gertakari batetik idatzi bat sor daitekeela erakutsi nahi da. Ohitura egokia izan daiteke ikasleei beraien ohar-koaderno bat sortzeko

proposamena, egunero bizi dituzten sentrazioak edo bizipenak idazten joateko.

Garbi izan dezaten zer da eleberria eta zer ez. Bilatu definizioak

Cassanyren dekalogoak idazteko hamar gomendioak. Bakarka irakur eta interpretatu dezatela, bera nolako idazlea den ondorioztatzeko.

### **3. LAN-SEKUENTZIA**

#### **6. jarduera:**

Jarduera honetan oinarrizko erreferente diren testuen irakurketa eta azterketa kontestualizatua egitea eskatzen da. Testu batzu banatuko dizkiegu azterketa egiteko:

### **4. LAN-SEKUENTZIA**

#### **7. eta 8. jarduerak euskal eleberrigintza modernoaren hastapenak:**

*Leturiaren egunkari ezkutua eta Egunero hasten delako/ Zergatik Panpox*

Zatiak irakurri eta aztertu (garaia kontuan izanik) / Arantxa Urretabizkaiak *Zergatik panpox*-ekin erabilitako teknika eta estrategia *narratiboak* ahozko tradizioetik hurbilago daude: errepikapenak, metaketak, errimak...

### **5. LANSEKUENTZIA: eleberria planifikatzen**

Idazte-prozesuaren lehen fasea jarriko da martxan; kontaktaren planifikazioa. Hori gauzatzeko jarraitu beharreko urratsak zehazten eta bideratzen lagunduko diegu ikasleei.

Edozein narrazio literarioa planifikatzean honako urrats hauek hartu behar ditugu kontuan:

- Komunikazio egoeraren azterketa. Zer ekoiztu, norentzako, zertarako...
- Ekoiztu nahi duen testua sortzeko abiapuntuko ideien hautaketa. Beraz, ideien sormena lantzea proposatzen dugu atal honetan
- Testu motari dagozkion bestelako elementu erabakigarrien zehaztapena: pertsonaiak, lekua, garaia...
- Ideien antolaketa. Behin istorioaren oinarriak finkatuta, eskema bat egiteak argiago erakutsiko digu antolaketa, betiere, malgua izango delarik.

## **9. jarduera: amaierak asmatzen**

Jarduera hau ideien sormenerako oso lagungarria izango zaie, ideiak sortu eta nola garatu modu autonomoan egin beharko dutelako, betiere, euren esperientzietan oinarrituz; izan ere, haiek dira sortuko duten eleberriaren gidariak.

## **6. LANSEKUENTZIA : argumentuaren bila**

### **10. jarduera-11. jarduera**

Argumentua bilakatzeko hazia garatu beharko dute

## **7. LAN-SEKUENTZIA: argumentua eta kontatzeko era**

### **12. jarduera/13. jarduera**

Behin argumentua garatuta eta idatzita dagoela, pertsonaien karakterizazioan sartuko gara. Hainbat pertsonaiak parte har lezake istorioan baina beti egongo da bat besteek baino nagusitasun handiagoa izango duena. Funtzioen arabera joango dira garrantzia hartzen pertsonaiak.

a/ nagusiak

b/ bigarren mailakoak

c/ kapituluetako pertsonaiak

Argumentua definituz joan beharko dute ikasleek. Horretarako, gainerako ikasleekin partekatuko dute euren argumentua.

Hona hemen argumentu batek izan behar dituen gutxieneko alderdiak:

- gutxienez pertsonaia bat izango duen mundo narratibo bat sortzea
- hasierako egoera edo arazo bat identifikatzea, baita helmuga bat ere pertsonaiarentzat.
- Arazoaren konponbiderako asmoak erakustea
- Amaierako egoera bat finkatzea, landutako ibilbidearen emaitza izan daitekeena edo bat batean sortua

Kontakizun orok

- Sinesgarritasuna izan behar du
- Interesa edo erakargarritasuna

Kapitulua sortzeko proposamen bat egiten da

## **8. LAN-SEKUENTZIA. Deskribapenaren funtzioa**

### **14. jarduera/15. jarduera/16. jarduera**

Deskribapenak testuaren ulermena zabaltzen lagunduko digute. Pertsonaien deskribapenerako dauden moduak bereganatuko dituzte informazioan, eta jardueran hiru deskribapen moduren identifikazioa lortu beharko dute taldeka jarrita.

Euskal eleberrigintzan erreferente diren idazleen lanak aztertuz, pertsonaien eta ekintzen eszenatokien erabilera nola egiten den aztertuko da jardueran.

## **9. LAN-SEKUENTZIA: eszenatokien deskribapena**

### **17. jarduera.**

Espazio jakin bat deskribatzean, haren nolakotasuna islatzen duten elementuak eta ezaugarriak ez direla edozein eratan aurkezten jakin behar dute. Narratzaileak aurrez finkatutako deskribapen-plan baten arabera ordenatzen eta aurkezten ditu datuak.

Jarduera honetan dauden testuak aztertuz, bakoitzak zer deskribapen-plan motari erantzuten dion identifikatu behar dute taldean jarrita.

## **10.LAN-SEKUENTZIA: Kontakizunaren erritmoa**

### **18.jarduera/19.jarduera/20.jarduera/21.jarduera**

Kontakizunaren erritmoa manipulatzeko bi aukera daude: bizkortzea eta moteltzea.

Bizkortetaren efektua lortzeko: kontakizunean tarte laburra uzten zaio istorioan luze eta zabal gertatutako ekintza bati (elipsia)

Moteltzeko efektua lortzeko: deskribapena eta bakarrizketak

Ereduak aztertu eta galderak erantzun

### **22.jarduera: zeuen eleberriaren azken berrikusketa**

Kontrol zerrenda erabil daiteke eleberriaren berrikusketarako . Talde handian teoría mailan eman dena eztabaidatzea proposatzen dugu.

### **23. jarduera: azala aukeratzen**

Sormen estetikoaren beste itxura bat

**Unitatearen helburuetako bat atseginerako helburu duen literatura- obra bat irakurtzea zen, eta horrekin batera, eleberri hori irizpide propioz hautatzea.** Irakurketa bukatzean beraien balioespina ahots goran egin beharko dute talde handiaren aurrean.

Liburua beste kideei gomendatzea liteke egokiena, baina gelan hautatutako eleberria gustatu ez zaionik balego, bere arrazoiak emanez defendatu beharko du gomendioaren ezetza.

Gomendioak emateko tartean kontuan izan behar diren alderdiak:

- Eleberria hautatzerakoan kontuan izan dituen baliabideak aipatzea
- Aurrezagutzen aktibazioa... nola eman den
- Besteen aurrean iritzia partekatzeko aukera ematea.

#### 4 Denboralizazioa

<b>MOTIBAZIO SAIOA. 0 jarduera:</b> Gure historiaren protagonistak ezagutzen: <ul style="list-style-type: none"> <li>• irakurketa</li> <li>• galderak erantzun</li> </ul>	1h	1
<b>1 LAN-SEKUENTZIA- Irakurtzeko zaletasuna</b> <b>1 jarduera:</b> Irakurri zertarako? Zerk eraman gaitzake liburu bat irakurtzera? <b>2 jarduera:</b> Euskal prensa eta idazleei egindako aipamenak <b>3 jarduera:</b> eleberria irakurtzeko aukera	1 h 1 h 0.5	2'5
<b>2 LAN-SEKUENTZIA – Zer da eleberria?</b> <b>4 jarduera:</b> eleberria definitu <b>5 jarduera:</b> eleberria idazteko dekalogo posible bat	1h 1h	2
<b>3 LAN-SEKUENTZIA- Eleberrigintzaren sorrera</b> <b>6 jarduera:</b> Euskal eleberrigintzaren sorrera aztertu	1,5h	1,5
<b>4 LAN-SEKUENTZIA- Euskal eleberrigintza modernoa</b> <b>7 jarduera:</b> Ohiturazko eleberriekiko haustura. <b>8 jarduera:</b> Berrikuntza kontatzeko eran.	1,5h 1,5h	3

<b>5 LAN-SEKUENTZIA- Idazte espedizioa planifikatzen</b> 9 jarduera: amaierak asmatzen	1,5	1,5
<b>6 LAN-SEKUENTZIA- Argumentua</b> 10 jarduera: argumentuaren bila 11jarduera: pertsonaiak definitzen	0,5 0,5	1
<b>7 LAN-SEKUENTZIA- Argumentua eta kontatzeko era</b> 12 jarduera: argumentua garatzen 13 jarduera: eleberriaren kontatzeko era erabakitzen	1h 0,5h	1,5
<b>8 LAN-SEKUENTZIA- Deskribapenaren funtzioa</b> 14 jarduera: pertsonaien deskribapenak aztertzen (eredu bat) 15 jarduera: hainbat pertsonaiaren aurkezpenak aztertu 16 jarduera: pertsonaiak identifikatu	0,5h 1h 0,5h	2
<b>19 LAN-SEKUENTZIA- Eszenatokien deskribapena</b> 17 jarduera: zenbait eszenatokien deskribapenak aztertu eta zeuen eleberriaren eszenatokia deskribatu	1,5h 0,5h	2
<b>10 LAN-SEKUENTZIA- Kontakizunaren erritmoa</b> 18 jarduera: ereduak aztertzen 19 jarduera: barne-bakarrizketaren ezaugarriak identifikatu 20jarduera: zeuen eleberria berrikusten: denbora erreparatu 21 jarduera: pertsonaien elkarrizketak 22 jarduera: zeuen eleberriaren azken berrikusketa 23 jarduera: eleberriaren azala hautatu	1h 0,5h 1h 1h 1h 0,5h	5
<b>24 jarduera eleberrien azalpenak</b> <b>25 jarduera irakurketaren azalpenak</b>	6h 3h	9
<b>AUTOEBALUAZIOA</b>	0'5	0'5

**Guztira: 33,5 h gutxi gora behera**



## **IPUIN BAT BOST MINUTUTAN IZKRIBATZEKO**

Ipuin bat bost minututan izkribatzeko beharrezkoa zaizu –ohizko luma eta paper zuria ez ezik-, hareazko erloju ñimiño bat ere, zeinek, iragan denboraren berri ematen dizunarekin batera, bizitzaren eta –ondorioz- zeure aktibitate horren verberaren alfertasuna ere irakatsiko dizun, eta une oro salatuko. Eta ez eseri gero oraingo horma monotono horietako bati begira; zure begirada gal dadila leihotik harantz hedatzen den ikusmira zabal horretan, non kaio eta usoak, eta baita zenbait txori ezdeusagoak ere, beren bozkarioaren geometría marrartzuz doazen. Komeni zaizu, gainera –derrigorrezkoa ez izan arren- edozein musika arrotz entzutea, ulertzen ez duzun kanta errusiarren bate do.

Gauzak hola, jira zaitez zeure gorputzaren baitarantz, eta galde egiozu ea gogo onez dagoen, ea baduen egarri ala goserik; egarri, gose edo bestelako larritasun motarik. Erantzuna baiezkkoa bada –hazkura orokor bat sentitzen baduzu, esaterako- ez zaitezela horregatik etsipenean eror, zeren suerte txarrekoa ere izango bailitzateke lehen saioan, aurreneko ahaleginean, lana bideratu ahal izatea. Kontuan izan, bestalde, nola oraindik minutu erdia ere bete ez den. Altxa zaitez, beraz, eta zoaz sukalderaino; eta lasi ibili, ez hartu presa larregirik.

Sukaldean ontzi bete u redan ondoren –eta lepagaina ur horren pixka batez igurtzi ezker, are eta hobekiago-, visita ezazu komuna mahai aurrean berreseri aurretik. Zeren pasilloan pixa egiteak ez baitu zer ikusirik literaturarekin.

Hor segitzen dute kaio eta usoek, leihoz harantz hegaka; eta hor segitzen du, baita ere –ezkerretara daukazu apalean- zure betiko hiztegi zahar eta handiak. Har ezazu segituan, eta kontu handiz hartu ere, elektrizitatea balu bezala. Ondoren, hiztegia maitale bat bailitzan besarkatuz, jar ezazu esaldi hau paperean: Ipuin bat bost minututan izkribatzeko beharrezkoa zaizu...

Ez dira bi minutu bete oraindik, eta jadanik egina daukazu hasiera. Zorionak, beraz, nire zorion beroenak. Eta ez bakarrik betiere hain zaila izaten den hasiera horregatik, baita besarkatzen duzun hiztegi handi eta zaharragatik ere; zeren, sinestaidazu, bere orrialdeetan dago falta zaizun guztia. Zinez esaten dizut: kutxa horretan gordeta dauden milaka hitzen ahalmena infinitoa da, nahi den guztia egin liteke beraiekin.

Obeditu egiozu orain zure senari, eta imajinatu zu zeu Golem berbera zarela, hots, letraz eginiko gizon ala emakume bat. Bada, zure osagarri diren letra horiek aurki dezatela beren letrakidea –sinpatiaz lehertzen diren dinamita kartutxoak bezala- hiztegiaren artean. Nola? Zein ekintzaren bitartez?... gizona, ez zaitez hain makala izan. Ez al dakizu liburu bat zabaltzen?

Eman dezagun baietz, eta hiztegia hogeigarren letra paretik zabaldu duzula. Halatan, burutu da ekintza, eta segundo gutxi batzuen truk, gainera. Zeren zuk argia ematearekin batera, gordeta eta lo zegoen hitz bat esnatu egin baita, eta zure orriraino jaitsi; atsegin, ezti, zure ipuinari zerbitzatzeko prest.

Sarea da hitz horren izena.

Eta hor non mugimendu ttiki hori hiztegi guztiak kutsatzeraino hazten den. Bai, letra guztiak urduri daude, atera dira beren lozorrotik; eta oihu egiten dute, edo kanta, edo hasperen... eta ez da, pentsatzen jarrita, hain harritzekoa ere. Hiztegietan bizi direnak umeak bezalakoak baitira; ume hutsak, jostatzeko gogoz beteak.

Luze gabe, bigarren hitz bat –inbidiatan aurrenekoarekin- inguratu egiten zaizu, eta paper zuriaren izkina batean etzan. Esku: hauxe da bidaiari berriaren izena.

Jadanik ez duzu hiztegirik behar. Uztazu berriro apalean, eta makurtu zaitez mahaira. Izan ere, denbora aurrera doa, eta aurreneko bi hitzek osatu duten esaldia lehebailehen idatzi beharra daukazu... bai, gizona, parentesi artean bilduta datorren esaldi labur hori:

*(-Sare hau jarri nuen aurpegian eskuak erre zitzaizkidan egunean).*

Oraintxe bete dira hiru minutuak, eta bi besterik ez zaizkizu gelditzen. Halere ez zaitu denbora gutxi horrek arduratu behar. Zeren aurreneko esaldi hori idatzi bezain azkar, beste askok ere egin nahi izango baitute zureganako bidea, hala nola egiten duen gau tximeletak argirantz. Ondo pentsatu ondoren, esaldi bat aukeratu eta parentesi artean jar ezazu. Honako hau, esate baterako:

*(-jendeak gupida hartzen zuen nitaz, eta batez ere aurpegiagatik, aurpegia ere errea neukala uste zutelako denek. Ez ziren nire sekretuaz jabetzen, eta horrek, niri harrotasun handia ematen zidan. Beraien gupida faltsuaren gainetik jartzen ninduela iruditzen zitzaidan)*

Bi minutu geratzen zaizkizu oraindik. Murgil zaitez paperean, ahaztu zaitez munduaz; joka ezazu hitzekin prestidijitadoreak painuelokin bezala. Eta, oroz lehen, zabal ezazu –ale hop!- hirugarren parentesia:

*(-Badakizu oso emakume ederra nintzela. Hamar bat gizonak loreak bidaltzen zizkidaten egunero).*

Zabaldu, halaber, laugarrena, eta korrika idatzi esaldi berria, aurrekoarekin ia kateaturik etorri dena:

*(-Horietako gizon batek nirea jakin eta aurpegia erre zuen, baina benetan, ez itxuraz, eta gutun bat egin zidan gero. Biak egoera berdinean geundela, zioen, bere jokabidea maitasun froga bat besterik ez zela).*

Begiraiozu erlojuari azken minutua xahutzen hasi da. Serenitatea behar duzu orain. Aurrera, ipini beste esaldi bat paperean:

*(-Nigar asko egin nuen gutuna irakurri eta gero. Hunkitu egiten ninduen gizon haren umiltasunak. Baita noraino maitatzen ninduen ikusteak ere).*

Berrogeita bost segundo baizik ez zaizkizu gelditzen. Ez etsi, bultzada ttiki bat eta amaieran aurkitu zara. Ekin seigarren parentesiari:

*(-Nire aurpegia erretzekotan egon nintzen aurreneko mementoan. Erantzun egin nahi nion bere maitasun frogari. Baina ez nuen asmoa bete. Alde batera, ikara ematen zidan sufrimendu fisikoak, eta bestera, harreman hasiera ederregia iruditzen zitzaidan. Berak aurpegia erre, nik aurpegia erre; ez dakit, maitasun gehiegizkoa zen. Nola murgildu gero, bikote bat bezala, eguneroko bizitza arruntean? Baina, bestalde, ezin nuen nire maitalea baztertu. Eta egia ere ezin nion azaldu, ez naiz hain krudela. Horregatik joan naiz gaur bere etxera. Nik sare bat neraman aurpegian; berak beste bat. Bularrak eskaini dizkiot, eta muxurik gabe maitatu gara, bi disfrazatu bezala. Gero labana , sartu diot bihotzean, eta nigarrez hasi naiz, bere gutuna irakurri nuen bezala. Eta nigar egin bitartean galde egiten nion neure buruari, zergatik bihurtu ote zen latz nire tranpa ttikia, zein bide ilunetatik).*

Eta parentesia ixten duzu –ipuinari amaiera emanaz- erlojuaren azken alea erortzera doan une berean.

Bernardo Atxaga, *Obabakoak*, Erein

## PERU ABARKA

Peru: Egun on, Maisu Juan. Ondo lo egin dozu?

Maisu Juan: Nor da hor?

P.: Neu, jagiteko ordua da

M.J.: Ze ordu da bada?

P.: Gesi baten zortzirak

M.J.: Ez nire gorputzeko erlojoan. Lo gozo-gozoan nengoan, ta lo batek iraun deust etzun nintzaneti hona. Oraintxe bere ezin edegi ditut neurer begiak. Zelan urten ohe honetati?

P.: Zer dauka ohe horrek?

M.J.: Ez dauka Erregek ez bigunagorik, ez hobagorik. Sartu nintzanean egin neban luma artean toki eder bat; ez dot jira bat egin gau guztian.

P.: Hamar orduko loa egin dozu beraz, bada etzun zinean bart hamarretaruntz.

M.J.: Nundi dakizu hemen ze ordu dan, erlojorik ez badago, entzuten ez bada eleizakoa?

P.: Baserrietan daukaguz igargarri asko egunez ta gabaz, ta zuzenago gabilz gu orduetan, herri barruetakoak baino.

M.J.: Beraz jagi behar dot. O ze nagi nazan! Bentako imitxa guztiak bere ez nenduen iratzartuko. O ze beste gaba, atzokoa ta gaurkoa! Ze eguraldi modu dago?

P.: Txito ederra. Ez dago hodeirik, bai eguzki ederra; lei apur bat jasui da, baina ez esatekorik, ez kalte egin leikeanik.

M.J.: Noiz jagi zinean, bada, zeu?

P.: Goizabar; edo egun-usainagaz batera; ta belu neritxon beste egunetakoen aldean. Nok egon behar dau eguzkiaren pekoan legez ohetik urteteko? Oiloak kankaraxaz hasteaz batean jagiten naz beluen dala. Oilarraren azkenengo soinuaz ingiratuten dira nire mutilak, ta jagiten dira gauerdiruntz geure behi, idi edo txahalai begiratutera, gero ohera bihurtuko badira bere. Ez dakigu hemen alperreteria zer dan; ez eguna gau egiten, herrietan askok legez. Ez zinean bart

etzun nire pentzudan, edo nik iratzartuko zendudazalako uste osoan? Ez ginean halan itundu?

M.J.: Bai, Peru; baina badakizu ez dala bardin gaueko jagigurea ta goizekoa.

P.: Daukagu gaur zer ibili ta zer ikusi asko, ta halan ingira zaite.

M. J.: Ekartzuz bada neure erropok, ta parkatu satisfazinoia. Besoa aterateko bere nagi naz.

P.: Maisu Juan: gauza bat esan behar deusut. Olara behar dogu, ta bazoaz zeure soinoko bitxidun ta ederrakaz, urtengo dozu sartu zinealako damuaz. Hango hormak kedarratuta dagoz keiaren keiaz. Jarten bazara gizategian, zikinduko dituzu prakak, ta ez dozu gauza garbirik aterako. Hobeto dozu jaztea neure soinoko batzukaz; inok ez zazauz honeetan ta Maisu Juan izango zara gero, baserrikotzat bazaukez bere olagizon ta beste zakusezanak (...)

M.J.: Ekartzuz abarka ta honeen mantak; baina zeuk jantzi beharko deustazuz, zerren ez dakit nik zelan iminten direan.

P.: Urten egizu bada noz edo noz ohe horretati; ekartzuz berna ta oinok...Zutindu zaite orain, ta eutsi txapela. Zein ondo dirudizun! Goazan orain ezkaratzera; nire emazteak prestauta eukiko dau oraingo koipatsua, ta egosita behi zegiaren esne ederra (...)